



MARTXOAREN 8KO MANIFESTUA 2025

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



AHIZPATASUNA

UGT-Euskadik, Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorrarekiko konpromiso irmoa adierazi nahi du, lan-arloan bereziki. Premiazko helburu ukaezin horrekin egiten dugu lan egunero, jarduera sindikalaren bidez, gauden leku guztietan, lantokietan batez ere.

Emakumeen eskubideen eta berdintasunaren aldeko aldarrikapena nagusi izango den egunean, adierazi nahi dugu neurri eraginkorrakoak hartu behar direla gure gizartean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko, emaitzak izango dituztenak. Izan ere, lan-munduan, sexuagatiko diskriminazioak eta genero-arrakalek indarrean jarraitzen dute.

Azken urteetako legegintzan emandako aurrerapenak aitortzen ditugu, baina hala ere, emakumeek lan-eremuan duten egoerari buruzko datuak oso kezkarriak dira oraindik, nahiz eta inoiz baino emakume gehiago dauden lanean eta gizarte-segurantzian afiliatuta (10,1 milioi estatuan). Beste behin ere ikus daiteke krisi ekonomikoa gainditu arren, enpleguaren eta lan baldintzen hobekuntzan, emakume e gizonezkoen arteko arrakalak gainditzeko asko falta dela oraindik.

2024ko INE/EPako urtereko datuen arabera:

- Jarduera-tasaren genero-arrakala (pertsona aktiboen guztizkoaren eta 16 urtetik gorako biztanleriaren arteko zatidura) ia %10 da 2024an (%9,99). Emakumeen jarduera-tasa %53,91koa da, eta gizonena, berriz, % 63,90koa.
- Enplegu-tasan (lana dutenen kopuruaren eta biztanleria osoaren arteko zatidura), emakumeen eta gizonen arteko aldea %10,34koa da. 2024an, emakumeen enplegu-tasa %47,07koa da, eta gizonena, berriz, % 57,40koa.
- Okupazioan, emakumeek alde handiak dituzte gizonekin alderatuta. Elkarrizketa sozialaren ondoriozko Lan Erreformaren ondorioz, lanaldi osoko okupazioaren guztizkotik 10.816.475 gizonak dira, eta 7.903.175 emakumeak; lanaldi partzialeko okupazioan (lan-baldintza prekarioagoekin), berriz, emakumeak gehiengoak dira. Lanaldi partzialeko okupazioaren guztizkotik, 2.149.300 emakumeak dira, eta 784.975 gizonak. Hau da, lanaldi partzialeko 10 enplegutik 7 emakumeek betetzen dituzte.
- Kontratazioaren iraupenean ere alde handiak daude. Azken urtean, kontratazio mugagabeak 600 mila pertsona gehiago irabazi ditu, erdia emakumeak. Baina oraindik ere gizonak dira nagusi: 8.235.775, eta 7.274.125 emakume. Aldi baterako kontratazioan, behin-behinekotasunaren tasa erdira jaitsi den arren (lan-erreformaren ondorioz ere bai), gehienak emakumeak dira: 1.638.625 emakume eta 1.291.275 gizon.
- Langabeziari dagokionez, emakumeak dira kaltetuenak. 2024an, 1.459.525 emakume zeuden langabezian, eta 1.311.175 gizon. Emakumeen langabezia-tasa % 12,68koa da, eta gizonena, berriz, % 10,16koa.

Ordainsariei dagokienez, genero-arrakalari buruzko azken datuen arabera, 2022ko Soldata Egituraren Inkestako datuekin, %17,09koa da, INEren metodologiaren arabera. Arrakala horiek ezabatzea, familia-zainketak eta etxeko lanak bere gain hartzean dauden desorekak, emakumeentzat eragin nabarmen negatiboa dutenak, garapen profesionalaren, pertsonalaren eta ekonomikoaren kaltetan, bai eta emakumeek eremu guztietan, lan-arloan barne, pairatzen duten indarkeria ezabatzea ere, lortu beharreko ezinbesteko helburuak dira, eta horien alde borrokatzen eta borrokatuko gara atsedetik gabe, lortu arte.

Soldata-arrakala txikiena duen bosgarren autonomia-erkidegoa da Euskadi, %16,47koa. Datu hori iazko txostenaren oso antzekoa da (2021eko datuak); izan ere, bertan ere bosgarren postuan zegoen arrakala txikienetan, oso antzeko ehunekoarekin (%16,68). Soldata baxuenak dituzten emakumeak Extremaduran daude, eta soldata altuenak dituzten emakumeak Euskadin daude, batez beste 29.314,69€ kobratzen baitute, baina, nolanahi ere, gizonek baino gutxiago; izan ere, gizonek 35.095,67€ jasotzen dituzte, eta 5.780,98€-ko aldea eragiten dute.

Indarkeria matxistei dagokienez, 2024an, Espainiako estatu osoan, 48 emakume hil dituzte bikotekideek edo bikotekide ohiek, eta 9 adingabe indarkeria bikarioaren menpe. Genero-indarkeria dela-eta, 36 adingabe umezurtz daude. Ez ditugu ahaztu nahi 2022ko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean beste feminizidio batzuek hildako 62 emakumeak.

Euskadiko indarkeria matxistei dagokienez, 2024an 5.634 emakume identifikatu dira indarkeria matxistaren biktima gisa, hau da, 2023an baino 762 kasu gehiago. Indarkeria matxistaren biktimen ia %87ri bikotekideek, bikotekide ohiek edo senideek eraso egiten diete. 260 emakumek "sarketa bidezko sexu-erasoaren delitua" jasan dute 2024an, hau da, aurreko urtean baino 67 emakume gehiagok, Ertzaintzaren txostenen arabera. Gainera, emakume biktima horien %40 Espainiatik kanpokoak dira.

Urtero bezala, gure gaitzespenik irmoena adierazten dugu emakumeek pairatzen dituzten indarkeria-ekintza guzti-guztien aurka, patriarkatuaren eredu eta arauen pean pairatze hutsagatik; izan ere, patriarkatuak beti bilatzen du emakume horien biziraupenari modu desberdinetan eusteko eta bermatzeko modua. Sindikalista feminista garen aldetik, indarkeria matxista mota guztiak desagerrarazteko gure borrokarako konpromiso irmoa enpresa eta lantoki bakoitzean egiten dugun ekintza sindikalaren bidez adierazten da, gure ahotsak eta indarrak mugimendu feministarekin elkartuz eta instituzioekin batera emakumeen aurkako indarkeriak desagerrarazteko politika publikoak ezartzen lagunduz, biztanleriaren erdiaren baino gehiagoren giza eskubideen defentsak eskatzen duen apustu sendo eta eraginkorrekarekin.

UGTk eskatzen du aurrera egitea arrakala horiek guztiak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko sexuagatiko diskriminazioa ezabatzeko gizarte-eremu guztietan eta, bereziki, lan-eremuan. Genero-arrakalak murrizten bizkorrago aurreratu behar da, emaitzak bermatuz. Horretarako, genero-ikuspegia duten politika publikoak eta berdintasunerako politika espezifikoak eskatzen ditugu, talde espezializatuak eta finantzaketa nahikoa eta iraunkorra dituztenak. Negoziazio kolektiboaren eta elkarriketa sozialaren esparrua ere eskatzen dugu, lan-eremuan berdintasunean aurrera egiteko ezinbesteko esparru gisa.

Berdintasunean oinarritutako hezkuntza eta hezkidetza aldarrikatzen ditugu, txikitatik genero-desberdintasunik eta indarkeria matxistarik gabeko kultura lortzeko. Erantzukidetasunean, ekitatean, autonomian, bizikidetza demokratikoan, elkarrekiko errespetuan eta askatasunean hezteak.

Ezinbestekotzat jotzen dugu sektore feminizatuenetako baten balorazio sozial eta ekonomiko justua aldarrikatzea, hala nola zaintzarena, sozialki gutxietsita baitago eta, ondorioz, gutxiegia ordaindua, lan baldintza oso eskasekin lan batzuetan.

Etxeko langileen parekatzea osatzea aldarrikatzen dugu, Espainiak berretsitako LNEren 189. hitzarmena betez, oraindik egiteke dauden esparruei dagokienez, hala nola negoziazio kolektiborako eskubideari dagokionez.

UGTrentzat ezinbestekoa da:

- LGSa igotzen jarraitzea soldataren batez bestekoaren %60ra iritsi arte (Europako Gutun Soziala betez), soldatetan dagoen genero-arrakala murrizteko, neurri handiagoan emakumeei mesede egingo liekeelako. Azpimarratzekoa da Lanbide arteko Gutxieneko Soldata hilean 1.184 eurora (14 ordainsari) igo dela 2025ean, Elkarrizketa Sozialean lortutakoa, eta ia 3 milioi lagunengan (%57 emakumeak) eragin zuzena izan duela. Euskadin, igoera horrek 50.000 pertsona ingururi eragin die.
- Lan-erreformaren hobekuntzen bidean aurrera egitea, langileek (eta, zehazki, emakumeek) ekonomiaren nazioarteko dezelerazio-egoerak behartutako koiuntura ekonomikoaren ondorioak ordain ez ditzaten. Politika publikoek, baita lan-politikek ere, genero-ikuspegia izan dezatela eskatzen dugu, emakumeak izan ez daitezen etor daitezkeen krisien ondorioak neurriz kanpo pairatzen dituztenak.
- Berdintasun-planak betetzeko eskatzea, legediak agintzen duen moduan, langileen legezko ordezkartzarekin negoziatu eta adostuta, eta plan horiek negoziatio kolektiboan lehentasunezko alderdi gisa bultzatzea, helburu hori betetzeko behar diren baliabide publikoez hornituz.
- Emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasunari buruzko araudia betetzen dela bermatzea, eta soldata-gardentasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko zuzentarauen transposizioa egitea, bai eta LNEren 190 Hitzarmena erabat betetzen dela bermatuko duten lege-egokitzapenak ere.
- Okupazio-segregazioari aurre egitea, genero-ikuspegia duten lanpostuen balorazioak ezarritik, gehienbat feminizatuta dauden lanei balioa emateko.
- Lantokietan indarkeria matxista desagerraraztea, zero tolerantziako politikarekin. Enpresa guztiek, tamaina edozein dela ere, sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko protokoloa eduki behar dutela gogoraraztea. Gainera, dauden protokoloetan sartzea Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak sartutako berrikuntzak, sexu-indarkeriaren biktimei gizarte- eta lan-eskubideak aitortzeko 2024an sartutako araudiarekin.
- Genero-ikuspegia duten enplegu-politika aktiboak zeharka areagotzea eta hobetzea, trantsizio digitalen, ekologikoen eta demografikoen ondorioz sortzen ari diren produkzio-sektoretarako emakumeen sarbidea eta prestakuntza sustatuz.
- Enpleguan diskriminazioa eta desberdintasuna ezabatzeko politika orokorretan ekintza positiboko neurriak hartzea, produkzio-sektore jakin batzuetako soldata-arrakalari eta emakumeen ordezkartza txikiagoari erantzuteko.
- Zaintzaren sektorea duintzea, genero-berdintasuna bermatzeko ezinbesteko urrats gisa. Zaintza-lan hori emakumeek egiten dute gehienetan, batez ere egoera ahulenean daudenek.

- Erantzunkidetasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera egitea, kontzientziazioa bultzatuko duten neurrien bidez, batez ere gizonak, maila sozialean eta enpresetan, ordaindutako baimenei lehentasuna emanez. Adingabeak 8 urte izan arte 8 asteko guraso-baimenaren ordainsari osoa eskatzen dugu, 2019/1158 Zuzentarauan jasotakoa, gaur egun ez baita betetzen.

- Berdintasunean oinarritutako hezkuntzan inbertitzea, hezkidetza araua izatea ezartzea, eta ez salbuespena, genero-estereotipoik gabeko gizartea lortzeko, testuliburuak eta dibulgazio-materiala berrikusiz, erreferente pluralak eta askotarikoak txertatuz, bereziki STEM lanbideetako emakumeak.

- Lan-agintaritza eskudunaren ikuskapen-, kontrol- eta zehapen-tresnak eta -baliabideak indartzea eta bermatzea, genero-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko legezkotasuna betetzeko lan-eremuan.

Emakumeek jasaten dituzten desberdintasun eta diskriminazio guztien aurrean, eta gure gizarte-egituran nagusi diren eredu matxistak eta horiek desagertzeko aurkeztzen dituzten erresistentziak ezabatzearen aurrean, UGTtik gure ahotsak batzen ditugu M8 honetan, mugimendu feministarekin batera.

Martxoaren 8an, munduko emakumeei gogorarazi nahi diegu beren eguneroko errealitateetan indarkeria patriarkalen eta beren eskubideen murrizketaren arriskupean daudela: Afganistango eta Irango emakumeak, gerra eta gatazketan genozidioak eta indarkeriak jasaten dituztenak, ugalketa-eskubideak murriztuta dituztenak.

Langileei dei egiten diegu martxoaren 8a dela-eta antolatzen diren ekitaldi eta manifestazioetan parte har dezaten, sinetsita baikaude indarrak batuz aurrerapenak irabazten ditugula berdintasunean, gizartean aurrera egiten, demokrazian eta emakumeen eskubideetan.